

KOSTUEN EGITURA

Gure sagardoteka aurrera ateratzeko hainbat gastu edukiko ditugu, gastu hauek bi motatan sailkatuko ditugu: kostu finkoak eta kostu aldakorrak.



Kostu finkoak:

Kostu hauek ez daude ekoizpenaren menpe, hauen balioa ez delako aldatzen ekoizpenaren arabera, beti balio berdina dute eta. Adibidez: lizentzia, langileen soldatak, segurua, alokairua, etab. ditugu.



Kostu aldakorrak:

Kostu hauek berriz, ekoizpenaren menpe daude, hauen balioa ekoizpenaren arabera delako, hau da, bezero kopuruaren arabera izango dira eta ekoizpena igotzen bada kostu aldakorrak ere igo egingo dira. Adibidez: lehengaiak, ura, argindarra, gasa, etab. Beraz hauen balioa gutxi-gorabeherako balio bat izango da.



Lehen aipatu bezala proiektuko partaide bakoitzak 4000€ ipiniko ditu “sagardoteka” aurrera ateratzeko eta lehenengo hilabetean laguntza beharko dugunez, finantza erakunderen bati eskatuko genioke laguntza hori.



GASTUAK LEHEN HILABETEAN:

KOSTU FINKOAK	
Erreforma	600000€
Altabozak (6)	1500€
Lizentzia	Sagardotegia 1000€ eta diskoteka 1300€
Soldatak	12000€
Alokairua	2500€
Segurua	1000€
Webgunearen hostinga	300€
Publizitatea	800€
GUZTIRA:	620400€

KOSTU ALDAGARRIAK	
Horniketak (elikagaiak eta diskotekarako beharrezko edariak)	7500€
Argia	3000€
GUZTIRA:	10500€

Gastu hauek hilabetero ordaindu beharrekoak balira negozioa ez litzateke errentagarria izango baina, kostu finkoetatik batzuk ez dira hala beraz:

KOSTUAK LEHENENGO HILABETETIK AURRERA	
Soldatak	12000€
Alokairua	2500€
Webgunearen hosting-a	300€
Publizitatea	800€
Horniketak	7500€
Argia	3000€
GUZTIRA:	26100€

